

MUSIKARIAK

Euskal Herriko musikari gehienek beraien lehen urratsak elizetako giroan eman zituztela kontutan hartzen badugu berbera esan behar Aramaioko musikariekin gertatutakoaz. Herri honetako musikarien heziketan elizako giroak izan du benetako garrantzia.

Hau honela, Aramaio herriak, biztanlez herri txiki honek, eman ditu musikari ospetsuak. Nahiz eta garrantzitsuena Vizente Goikoetxea izan den baditugu, gaur ere, besteak beste, Xabin Salaberri Gasteizko "Jesus Guridi" Musika Eskolan zuzendaria dena eta Rafael Mendialdua Gasteizko Katedraleko musika-kaperako maisua eta apaiztegiko musika-arduraduna dena. Aipatu beharra dugu ere herriko abesbatza zeinek Euskal Herriko toki askotan, Cataluñaiko zenbait herritan eta euskal telebistan eta espainakoan Vizente Goikoetxea eta Xabin Salaberri-ren ereskiak jakitera ematen ari den.

Musika aberastasun hau ez datorkio herri honi berezko sortzapenez. Izan ditu azken bi mende hauetan zenbait musikari zeintzuk udaletxeko musika-batzordetan parte hartuz edo elizako musika-arduraduna izanez edo musika eskolak emanez sortu eta bultzatu duten musikarako zaletasun hori.

Organulariak

Ezagutzen dugun lehen organujolea Florentino Ugarte dugu. Beraz, bera izan zen 1863tik 1870 urtera ia eraiki berria zen elizako organista. Urte gutxi lehenago, 1832 urtean, elizako alboko aldarak jarri aurretik, herriko udaletxeak eta elizak 15.000 erreal ordaindu zioten, erdibana, Manuel de Amezua organugileari. Hamar urte geroago tiplea, fagota eta klarineteak erosi ziren organuaz batera jotzeko.

Florentino Ugarte 1797 urtean jaio zen Oñatin eta Aramaion eman zituen zenbait urte eskola-maisu lanetan. Maisutza utzi ondoren, 1863 urtean, Udaletxeari organulari lanbidea eskatzen dio. Udaletxeko liburuetan agertzen denez 880 erreal ordaindu zizkioten urtero.

Florentino Ugarte 1873 urtean hil bazen ere, bi urte lehenago bere semea zen Benigno Aristegi musikoak hartu zuen organuaren kargua. Denbora gutxi iraun zuen kargu horretan zeren 1874 urtean, birikeriaz, hil egin bait zen. Musiko hau izan zen, beraz, Vizente Goikoetxearen trebetasunaren jakile, aitaren izkutuan Vizenteri lehen piano klaseak eman zizkiona.

Benigno Aristegi-ri Sabas Amilburuk hartuko dio txanda eta honi bere semea zen Roque musikoak. Aita-semeak bete zituzten 1874 urtetik 1952 urterarteko herriko musika eginbeharrak, bai organulari bezala, bai txistulari eta atabaljoile bezala, baita musika-eskola emaile ere.

Sabas Amilburuk bere aita eta herriko atabaljoile zen Pablo musikoarengandik ikasi zituen lehen musika ikasgaiak. Geroago, 1875 urtean, Vizente Goikoetxea eta Sabas Amilburu elkarrekin ikusten ditugu Bach eta Liszt-en obrak aztertzen. Sabas Amilburuk izan zuen aukera bere herritik ateratzeko zeren bai Amorebietako organujoile plaza baita Laguardiakoa, Santa Maria Elizakoa, irabazi zituen. Baina berak hainbeste maite zuen herriak atziturik zeukan Sabas eta bere jaioterrian jarraitu zuen musika-eskolak ematen Vizente Goikoetxeak hainbat alditan laguntzen ziola.

Mende honetan, gerra zibilaren ostean, Fidel Ibargutxi izendatu zuten herriko erretor laguntzaile. Honek Roque Amilburuk landutako bideak jarraituz zenbait gazte prestatu zituen eta bideratu musikagintzara. Gaur herriko organujolea dugun Victor Mendialdua musikoa apaiz honen ikaslea izan zen eta berarengandik hartu zituen lehenengo organu ikasketak geroago Dionisio Isasmendi organistarengandik hartu bazituen ere.

Elizako kargu honen ordaintza Udaletxeak hartu izan du bi mendeetan zehar. Baina, gaur egun, kargu honek ez du ordaintza tinkorik urte bukaeran Udaletxetik ematen zaion oparia baizik.

Orfeoia

XIX. mendean zehar Aramaio herriak izan zuen bere orfeoia. Udaletxearen batzar nagusiak, 1866ko maiatzaren 31an, eres talde bat osatzea onartu zuen herriko jaiak ikusgarritzeko. Urte berean osatzen da orfeoia bere partaideak Bruno Sebastian de Echevarria, Benigno de Aristegi, Petulio Ibabe, Hermenegildo Landaburu eta Isidoro Imaz zirelarik. Herriak hain ondo hartu zuenez bere orfeoia, abenduaren 7an, Udaletxeak orfeoia ereskin berriz gehitzea erabakitzen du eta 1867ko irailaren 10ean Bruno Echevarria orfoiaren zuzendari izendatzen dute zeini ardoari jarritako zerga berezi batez ateratako diruaz urtean 880 errealeko soldata ordainduko zaion.

Herriak giro musikal aberatsa bizi du: zenbait umek musika ikasi nahi dute. Udaletxeak erantzun nahi izango dio herriko jendearen musikarako zaletasun horri eta 1866ko uztailan piano bat erostea erabakitzen du. Elizako organoaren alboan jarriko da.

Orfeoia osatzen zuten musikari artean zenbait eztabaida sortu zirela eta eres-talde honek laster huts edo porrot egin zuen eta 1870eko martxoaren 20an Udaletxeko batzar

nagusiak orfeoia haustea erabakitzen du. Zenbait instrumentu edo ereskin Arrasateko eres-taldeak erosi omen zituen.

Vicente Goikoetxea

Aramaioko eliz-musika giro honetan sortzen zaio Vizenteri musikarako zaletasun hori. Florentino Ugarte eta Benigno Aristegi, herriko organulariak, izan ziren bere lehen musika maisuak. Gasteizen batxilergo ikasketak egiten ari zela herrira bueltatzerakoan Sabas Amilburu-rekin Bach-en musika aztertu eta landuko du. Arratsaldetan bere aitak ur-hartzaileentzat zuen ostatuan pianoa jotzen du eta herriko musika maisuari abestaldeak zuzentzen lagunduko dio.

Oñatin lege ikasketak egin ondoren Lekeitioko notaritzan zenbait urtetan lege-ara-zoak eramango ditu. Aita hil zitzaionean eta 34 urte zituela Valladolidera joko du apaiz ikasketak egitera, hiri honetan bizi bait ziren Egiluz jaun-andreak nortzuk semetzat hartu zuten etxean eta apaiz ikasketak ordaindu.

Apaizgai zela eta Tolosan Gorriti-rengandik eskolak hartu ondoren Valladolideko Katedralean irabazi zuen kapera-maisu lanpostua. Apaiztu ondoren hiri honetan emango ditu bere urteak eliz musika gaurkotzeko lanetan. Bi euskal musikari, Vizente Goikoetxea eta Nemesio Otaño, izango dira Espainiako eliz musikaren eragileak.

Goikoetxearen musika erlijiotasunez betea dago eta abesterakoan edo entzuterakoan izpiritu eta gogotasun horren kide egiten gara samurtasun osoz. Honetaz Adierazgarriak ditut Gasteizko "San Vizente" elizako organujoleak, Lizarralde jaunak, behin kontatu zizkidan datu hauek:

- Durangoko abesbatzan tiple zela Vizente Goikoetxeak zuzentzen zuen entsaio batetan abesten baino denbora gehiago iraun zutela letraren esanahiaren izpirituaz bat egiten.

- Behin Nemesio Otaño joan omen zitzaion Vizenteri bisitaldi bat egitera. Goikoetxea begiak zerurantz begira, espainak eskuturik eta armonioa jotzen aurkitu zuen. Otaño-ren etorreraz etzenez konturatu honek eserita itsaron zion. Bere aurrean idatzi zuen "O Cor Jesu" musika. Amaitu zuenean Goikoetxeak "nondik sartu zara" galdetu omen zion.

- Valladolideko Katedralean aste santu batetan goiz-otoitz ondoren, "Christus Factus" lehen aldiz abestu zenean, Goikoetxeak berak zuzentzen omen zuen abesbatza. Bukatuaz batera lurrera erori zen. Ez omen zekien non zegoen.

Benetan emankorra izan zen Goikoetxeak polifonia arloan burutu zuen eliz kutsuko musikalana: "Missa in honorem Immaculae Conceptionis B.M.V.", "Christus Factus", "Ave Maria", "Salve", "Te Deum Laudamus", "O Sacrum Convivium", "Ave Verum", "Tantum ergo", "Miserere", "Benedictus" eta beste zenbait meza eta motete.

Lizarralde organujoleak kontatu zidanez, Gasteizko Katedraleko Sertutxa kalonjeak eliz-txango bat egitera Erromara joan zenean "Miserere" eres-partitura erakutsi zion

Perosi-ri. Honek eskerrak eman ondoren: "bai ezagutzen dut, musika hunkigarria da benetan" esan omen zion.

Munduan zehar hain onetsia izan den musikari honek jasan behar izan zituen hamai-ka erdeinu bere herri-kideengandik. Adibide bezala bat aipatzera noakizue: hegoaldeko lau lurraldetan zehar ehundaka eta milaka kantu eta instrumentuentzako doinuak bildu zituen Resurrección María de Azkue-ren bitartez D'Abbadie jakintsuak Aramaio herria izendatu zuen 1899 urteko "Fiestas Euskaras" ospatzeko herria. Udaletxean zenbait batzorde sortu ziren egun hori antolatzeko. Azkuek bere lagunmina zen Goikoetxeari Meza bat idaztea eskatu zion eta honek egin ere lau ahotsetara. Baina herriko batzordeak uko egin zion meza horri eta Gorriti-ren meza abestu zen.

Vizente 1916ko apirilaren 9an hil zen Valladoliden 62 urte zituela. Urte berean, urrian, Aramaioko udaltxeak eta Gasteizko apezpikuak omenaldia eskaini zioten eta bere jaiotetxean plaka bat jarri zuten idazpuru honekin:

"ementxe jaio zan jaun
argitsu elizmusikari bikain eta
elizgizon bioztu
VIZENTE GOIKOETXEA ERRASTI
beronen adieslen gorespena.
Aramaion 1916ko urriaren 22an"

Bere mendeurrenean beste omenaldi bat eskaini zion herriak. Egun horretan Bilboko "San Vicente" abesbatzak eta Lekeitio eta Arrasateko abesbatzek eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak parte hartuz "Missa in honorem Inmaculae Conceptionis B.M.V." abestu zuten. Herriak egun horretan Goikoetxearen giz-irudia jarri zuen herriko sarreran.


Xabin Salaberria

Aramaio herriak badu, gaur ere, musikari ospetsuak direnak. Denetik aipagarriena Xabin Salaberri dugu, Gasteizko "Jesus Guridi" musika eskolako zuzendaria dena.

Xabin 1934 urtean jaio zen, bederatzi anai-arrebek arteko gazteena. Ume zela bere familiak eman zion musika-giroa. Bere aitak bibolina jotzen zuen eta anai nagusiak elizako korua zuzentzen.

Musika lehen ikasketak, solfeo eta pianoa, herriko apaiza zen Fidel Ibargutxi-ren-gandik hartuko ditu. Gasteizko apaiztegian Tomas Echavarri, Julio Valdés eta José María Zapirain izango dira piano, armonia eta gregoriano gaien maisuak. Geroago Francisco Escudero eta Karmelo Bernaola-rekin burutuko ditu musika ikasketak. (Dasagun Julio Valdés musiko ospetsuaren ama ere Aramaion jaio zela, Vizente Goikoetxearen arreba bait zen).

Salaberrik euskal eliz-barrutietako musika-batzordean musikagile bezala parte hartu du gaurko eliz-musika egokitzen. Euskadiko zenbait abesbatzak berarengana jo dute laguntza eske.



EN LA B. LERONINIDAD

EN EL D. D. D. D.

EN ESTA CASA D. IBARRA D. VALLE D. A. A. MAYONA.
NACIO Y VIVIO.

VICENTE D. GOICOECHEA Y ERRASTI

5 ABRIL 1854

9 ABRIL 1916

GRADUADO EN LEYES D. LA UNIVERSIDAD
DONATE: SOBRESALIENTE EN EL EJER-
CICIO D. LA FE PUBLICA: NOTARIO BL
ILUSTRE COLEGIO D. VALLADOLID: SACER-
DOTE: PROTOTIPO D. VIRTUDES Y HV-
MILIDAD: MAESTRO D. CAPILLA OR-
GANISTA Y DIGNIDAD D. LA IGLESIA

EMINENTE COMPOSITOR D. MÚSICA
GRADA: AUTOR D. NONA D. PENTECOSTES
OFICIO D. DEFUNTOS: GRAN MAESTRO
CHRISTUS: PASTOR: SOLEMNE GRADUADO
TE DEVU: MAESTRO VIENTY MAESTRO
MODELO D. SACERDOTE Y BARTILAS
AL SERVICIO D. LA IGLESIA CATOLICA

Karmelo Bernaolak Gasteizko "Jesus Guridi" Musika Eskolaren zuzendaritzari utzi zionean Xabin Salaberri izandatu zuten bertako zuzendaria. Xabinen obra musikal guztia Errenteriako "Eresbil" artxiboan dago bildurik.

"Vizente Goikoetxea" Abesbatza

Nahiz eta Aramaion betidanik eliz-giroko abestalde bat izan den, herriko erretor laguntzailea izan zen Fidel Ibargutxi apaizak 1943tik 1950 urtera Sabas eta Roque Amilburu herriko musikariengandik ikasi zuten gazteak bildu eta abestaldea berriztu egingo du. Goikoetxearen musika erakusten saiatuko da.

Urte batzutan zenbait kezka, zalantza eta larritasun pasa ondoren 1980 urtean abestaldea indarberritu egingo da eta bere helburua finkatu egingo du: herriko konpositoreen musika, Vizente Goikoetxea eta Xabin Salaberri-rena, zabaltzea eta jakinaraztea. Euskal herriko Abesbatzen Elkarteko kide egingo da eta Martin Arana musikoak hartuko du abesbatzaren zuzendaritza. Ordutik hona eman ditu hainbat kontzertu bai Euskal Herrian bai Cataluñako zenbait herritan. Aipatzekoa Espainiako telebistaren aurrean emandakoa, Goikoetxearen obrak azalgai zituela.

Herriak aurrera dihardu. Gaur egun, gazte mordoxka bat Arrasaten ari da musika ikasten. Hauetatik badira ere Bilbo, Donostia eta Gasteizera joaten direnak goi-mailako musika ikasketak egitera. Etorkizuna ez da ez makala.

Floren Unzueta
Organujolea